

Bilbo'n gure etxean, 1929'ko Azilaren 7'an.

Batzar ontan, euskaltzain jaun abek bildu dira : Azkue, maipuru, Landerétxe, Eguskitza, Olabide, Altube, aita Intza, Lakonbe, Etzegaray ta urgazletatik Ormaetxea jauna.

Otoitz egin da.

I.—Euskaltzaindiak deritza : Andoaingo Udalari ta bertako apaizburuari eskeraldi-bikañak azaldu bear zaiela, euskaltzain jaunai eman dizkieten begirune ta abegi onagatik, oraintsu Aita Larámendiren jaiak zirala-ta Andoain'en izan diranean. Gañera zorionak agertu bear zaizkie, ain ederki ta zuzen jai oiek eragin dituztelako. Bereziz aipatu nai luke Euskaltzaindiak Joakin Bermejo jauna, Andoaingo apaizburua.

II.—Aita Intzak Yaur-saleko buru danez, esan digu, nola dabilen euskal-zabalkundea. Napañoako *Euskeraren adiskideak* ez daude lo : euskal bazkun onek lan asko egiten du, aur-artean euskeraganako zaletasuna piztutzen, eta eri guzietan, ate-zabalik, artzen dituzte bazkun oren bazkide langileok. Esan digu ere egoki litzakela, urtero-urtero euskal-eguna geok eragitea, eri bateko gertapen baten 50 gañen edo 100 gañen urtea dala ta, edo gizon jakintsu euskaldun baten aomena bidez arturik. Oñela agintari diranak ez liguteke eragozpenik jariko : gu aurretik joango giñake : euskaltzaleak ez ginduzteke bakarik utziko. Datoren urterako ezdago ezer egin bearik gure aldetik : Noski *Eusko Ikaskuntza*, Bergaran bere batzar nagusia egiteko asmoz dabil-da. Beste urtetarako orde, Andoain'en egin dana, gogoan euki bear da, ta angoxe arauz beste nonbait egin. Esan digu gañera Iruñako apaiz-ikastetxeko euskeraren irakasle zan

Mikel Intxaúrondo jauna Madridera, bizi izateko, joan dala : ta onen ordez izendatu dutela Blas Fagoaga jauna : egunero ari da, ta ikasle asko omen ditu.

III.—Eguskitza jaunak atzeki diran-*kunde-ta kuntza*-en lan gañantzidun bat irakuri digu. Eguskitza jaunak deritza : bi atzeki abek, ikurpenez, batsu dirala ta eredu-bidez Azkuen iztegiko itz asko azaldu dizkigu. Azkuek ordea ezetz dio : ez dirala berdiñak, eta onetzaz itz egingo duen lan bat agindu digu.

IV.—Euskaltzaindiak erabaki du : bere batzordeko bat bialtzea Bizkai-Aldundi ta Bilbo-Udaleko buruzagiari, jaun abei eskaturik, eman dizagutela gure geletarako alako alderditxo bat orain Aldundi ta Udalak iratsi nai duten ikastetxe aundian. Bijoia Azkue jauna batzorde-buru.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik, ta otoitz egini, batzaraldi au bukatu da.

Bilbo'n gure etxean, 1929'ko Azilaren 8'an.

Batzar ontan euskaltzain jaun abek bildu dira : Azkue, maipuru, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Altube, aita Intza, Lakonbe, Etxegarai ta urgazletatik Ormaetxea ta Oleaga jaunak. Otoitz egin da.

I.—Atzo izendatutako batzordea Bizkai-Aldundi ta Bilbo-Udaleko buruzagiakin egon da ta Euskaltzaindiaren naia azaldu die. Jaun oiek aitzakotzat artu dute.

II.—Izparingietan azaldu bear da : ez dala gure *Euskera* urte buru guzian argitaratu, ta auxe ez inoren eruz ta bai guzian atsekabez : bañan datoñen